

KIROLAZ HEZI, KIROLAZ HAZI!



Leintz
Eskola
Kirola



ESKOLA KIROLA

ANTOLATZAILEAK IKASTETXEA - UDALAK



PROGRAMA

BABESLEAK

KUDEAKETA

MONITOREAK



Heziketa fisikoan eta kirolean
titulodunak edo ikasleak

INFORMAZIO GEHIAGO: LEINTZESKOLAKIROLA.EUS

HELBURUAK

Talde bateko kide direla sentitzea. Laguntzea. Lankidetzan jardutea. Taldea egitea. Kirolak, osasuna zaintzeaz gain, harremanak sortzen ditu. Gure gizartean hain garrantzitsuak diren balioak irakasten dizkie haurrei, hala nola integrazioa, elkartasuna eta errespetua.

ESKOLA KIROLAK kirolaren alderdi hezitzailea sustatu nahi du, haur bakoitzaren gaitasunetara egokitutako ikaskuntza prozesuaren bidez, alde batera utzita haurraren sexua, bizitokia, maila ekonomikoa... Integratu eta batu egiten duen kirolean sinesten dugulako, pertsona guztiak berdin baloratzen dituen kirolean.

Eskola Kirola Foru Aldundiek, udaletxeek eta ikastetxeek bultzatutako proiektua da.

Info gehiago:
leintzeskolakirola.eus

**KIROLAZ HEZI,
KIROLAZ HAZI!**

Haurraren heziketa eta garapen integrala jolasa, jarduera fisikoa eta kirola bide izanik:

- Guztientzako jarduerak; berdintasuna, integrazioa eta inklusioa.
- Kirol aniztasuna, adinaren araberako hastapen eta irakaskuntza egokitua.
- Ikasleen arteko harremanak sendotu.
- Ohitura osasuntsuak barneratu.
- Jarduera fisikoaz eta Kirolaz gozatu.
- Euskararen erabilera sustatu.



PROGRAMA ETAPAKA

ADINA	PROGRAMA	ASTEKO SAIOAK	EDUKIAK	LARUNBATAK
 JOLASAK 6 - 8 urte LH 1 - 2	JOLAS-HEZI PROGRAMA	2	Jolasen bidez; gorputzaren ezaguera, gorputz adierazpena, rolen bizipena, espazioaren estrukturaketa, kirol-jolasak,...	8 topaketa
 MULTIKIROLA 8-12 urte LH 3 - 4 LH 5 - 6	LEHIAKETA KIROLAK AISIALDI KIROL JARDUERA ANITZAK	1 edo 2	Rugbya, atletismoa, boleibola, saskibaloia, eskupilota, eskubaloia, 8ko futbola, areto futbola eta beste batzuk Beisbola, badmintona, xunba, euskal pilota, colpbola, ultimate, kirol egokitua, frontenisa, jugger, jolas kooperatiboak, jolasak naturan, patinajea, hockey patinak, ezagutza jolasak eta beste batzuk.	19 jardunaldi Topaketak aukeran
 ESPEZIALIZAZIOA 12 - 14 urte DBH 1 - 2	LEHIAKETA KIROLAK FITNESS JARDUERAK GAZTEKIROL ANITZA	2 edo 3 2 1 edo 2	TALDE KIROLAK: saskibaloia, eskubaloia, futbola, areto futbola, errugbia, hockey patinak, boleibola BANAKAKO KIROLAK: atletismoa, eskupilota, igeriketa, tenisa, padela, squash eta txirrindularitza. Fitnessera bideratutako ekintzak; xunba, hip-hop, balances, spinning, crosfit, bosu, ... mendi irteerak, bizikleta irteerak, badmintona, jugger, eskalada, frontenisa, skate/patinajea, jarduerak naturan, padela, esgrima, squasha...	Asteburuetan partidak kirolaren arabera Taldean aukeratutako ekintzak egiteko aukera
KIROL EGOKITUA 6-21 urte	KIROL JARDUERAK	2	Gimnasioko saio bat eta igeriketa saio bat. Taldeko ikasleen ezaugarrietara egokitutako ekintzak	8 topaketa

JARDUERA OSAGARRIAK

KIROL ESKOLAK AUKERAN!

Multikirolean parte hartzen duten LH 3-6. maila bitarteko ikasleek, Leintz bailarako kirol elkarteek antolatzen dituzten "KIROL ESKOLETAN" parte hartzeko aukera izango dute. Astean saio bat eta topaketak hilean behin igande goizetan.

Taldekatu kirolak: areto futbola, eskubaloia, errugbia, futbola, saskibaloia, boleibola, hockey patinak

Banakako kirolak: xunba, igeriketa, tenisa, padela, squash, txirrindularitza eta eskupilota.

SUSTAPEN JARDUERAK

Guztiontzat ikasturtean zehar hainbat larunbatetan eta ekainean udaberriko ekintzak: 3x3 saskibaloia txapelketa, espeleologia, hontza abentura parkea, surfa, padel surfa, karting-a, jumping, eskalada, izotz-pista,...

ETA GAINERA ...

Beste Kirol Jarduera batzuen informazioa: Santamas krosa, 4x4 eskubaloia txapelketa, Ojala Zelai krosa, Kirol elkarten campus-ak, triatloi txikia,...

Goi mailako kirol elkarteekin ekintza bereziak:
BASKONIA saskibaloia taldeko Euroliga partida bat ikustera irteera.





✓ HARREMANETARAKO

Ikastetxeetako koordinatzaileen kontaktuak:

<https://leintzeskolakirola.com/kontaktua/>

✓ OHARRAK

ASEGURUA

- Eskola kiroleko jarduera programako edozein jardueratan parte hartzen dutenek aseguru poliza bat izango dute. Aseguru poliza horrek bermatuko du erantzukizun zibileko arriskuen estaldura, eta baita gorputz atalen eta funtzioen galerengatiko eta heriotzarengatiko kalteordainarena ere. Osasun-laguntzaren estaldura Euskal Osasun Sistema Publikoak estaliko du, ikasleen amak/aitak edo legezko tutoreak aseguru pribatua duen kasuetan izan ezik.

✓ WEB GUNEA

- www.leintzeskolakirola.eus
- Informazio orokorraz gain, izen ematea, egutegia, ordutegiak, artikulu interesgarriak, ekintzen argazkiak eta bideoak ikusgai egongo dira.

